



2010eko martxoaren 17an

Herriko kontseiluko kide zaretan  
jaun-andreak,

Erref. : JMB/MHM – 384/2010

**2010eko MARTXOAREN 15ean, ASTELEHENA, 18 :00etan**  
**HERRIKO ETXEAN IRAGAN DEN**  
**HERRIKO KONTSEILUAREN BILDUMA**

**BERTARATUAK**: Guy POULOU Auzapez jauna, LOLOM jauna, BERLAN jauna, DOSPITAL-GHOSSOUB anderea, LALANNE jauna, WATIER DE CAUPENNE anderea, MACHENAUD jauna, MINTEGUI anderea, HIRIART jauna, IDIARTEGARAY-PUYOU anderea, URBISTONDOY jauna, ANCIZAR anderea, IBARLOZA jauna, CAPDEVILLE anderea, HARDOY anderea, ORIVE anderea, ERRANDONEA jauna, UGARTEMENDIA anderea, GOURAUD jauna, BAZERQUE anderea, DUGUET anderea, TAPIA anderea, MADRID jauna.

**AHALORDEAK**: DUBARBIER andereak LOLOM jaunari eman dio, COSTE jaunak DOSPITAL-GHOSSOUB andereari eman dio, GOUAILLARDET jaunak LALANNE jaunari eman dio, ANIDO jaunak ORIVE andereari eman dio, GLOAGUEN andereak ANCIZAR andereari eman dio, MINTEGUI jaunak TAPIA andererari eman dio.

**BERTAN ZIRENAK**: BORDENAVE jauna, Zerbitzuetako Zuzendari Nagusia, LAHOURNERE jauna, Finantza zerbitzuen arduraduna.

-----

2010eko martxoaren 8ko deialdia.

Bilkura Guy Poulou Auzapez jaunaren lehendakaritzapean iragan da.

**GAI ZERRENDA :**

**I/ Gai orokorrak**

- 1) 2009ko Abenduaren 15eko Herriko Kontseiluaren bildumaren onespena,
- 2) Herriko Kontseiluak Auzapez jaunari eman ordezkaritza (Lurralde Elkargoen Kode Orokorreko L 2122-22 artikulua),
- 3) Jules Ferry eskola (Zokoa) : aldi baterako eskolako egoitzaren eta lanbide-bizilekuaren erabilera berria,
- 4) Urteroko ekintza txostenak : PAES eta HHES.

## **II/ Finantza gaiak**

- 1) 2009ko Kontu Administratiboak eta Kudeaketa Kontuak,
- 2) 2010eko Aurrekontu Norabide Eztabaida,
- 3) Gazteen Etorkizunerako Tokiko Misioa : 2010eko diru-laguntza,
- 4) Sasaki salmenta,
- 5) H.E.V.E.N. elkarte - Denbora heren pedagogikoa : Gurutze Gorriko eskola,
- 6) A.D.I.P.G.N : Golfa ezagutu, ikasi eta hobetu,
- 7) YACHT CLUB BASQUE elkarte - Denbora heren pedagogikoa : Saint-Michel eskola
- 8) 2009ko lurgintza politikaren bilana,
- 9) 2009/2010eko hiru alderdiko ondarearen garapen hitzarmena Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Orokor eta LEIHORRA Higiezinaren Sozietate Zibilarekin : hitzarmenaren izenpentzeko baimena.

## **III/ Herriko langilegoari dagozkion gaiak**

- 1) Langile batzuk Laguntza Sozialerako Herriko Zentroaren esku jartzea,
- 2) Lanaldi partzialeko lanpostu baten sortzea,
- 3) 2010erako gradu igotzea.

## **IV/ Bestelako galderak**

Pierre BERLAN jauna izendatu da bilkura idazkari gisa.

## **I/ Gai orokorrak**

- 1) **2009ko abenduaren 15eko Herriko Kontseiluaren bildumaren onespena.**

DUGUET andereak eskatu dituen aldaketak izan ezik, Herriko Kontseiluak aho batez onetsi du 2009ko abenduaren 15eko Herriko Kontseiluaren bilduma.

- 2) **Herriko Kontseiluak Auzapezari eman ordezkaritza (Lurralde Elkargoen Kode Orokorreko L 2122-22 artikulua)**

Ordezkaritza horri esker, ondoko dokumentuak izenpetu dira :

- DANSER A 2 elkartearekiko hitzarmena, 2009ko irailaren 25ean izenpetua (2009ko urriaren 13an Suprefeturak baliozkotua), honen helburua Elkartearen Etxeko gela bat elkartearen esku jartzea baita, dohainik ;
- LUNA FLAMENCA elkartearekiko hitzarmena, 2009ko irailaren 25ean izenpetua (2009ko urriaren 9an Suprefeturak baliozkotua), honen helburua Elkartearen Etxeko gela bat elkartearen esku jartzea baita, dohainik ;
- « Ciboure en harmonie, Couleurs et Jazz » elkartearekiko 2004ko abenduaren 7ko hitzarmenaren 3. emendakina, 2009ko irailaren 25ean izenpetua, honen helburua Elkartearen Etxeko gela bat elkartearen esku jartzea baita, dohainik ;

- PAS A PAS elkartearekiko 2008ko azaroaren 20ko hitzarmenaren 1. emendakina, 2009ko irailaren 30ean izenpetua, honen helburua Elkarteen Etxeko gela bat elkarteren esku jartzea baita, dohainik ;
- SENS ET MOUVEMENT elkartearekiko 2008ko azaroaren 20ko hitzarmenaren 1. emendakina, 2009ko irailaren 30ean izenpetua (2009ko urriaren 9an Suprefeturak baliozkotua), honen helburua Elkarteen Etxeko gela bat elkarteren esku jartzea baita, dohainik ;
- ACRO 3D elkartearekiko 2008ko azaroaren 20ko hitzarmenaren 1. emendakina, 2009ko irailaren 30ean izenpetua, honen helburua Elkarteen Etxeko gela bat elkarteren esku jartzea baita, dohainik ;
- Mirentxu LONDAITZ anderearekiko hitzarmena, 2009ko urriaren 1ean izenpetua, Jean Poulou Kirol Zelaiko lurzati bat aldi baterako erabiltzeko ;
- Louis LE GUICHET jaunarekiko hitzarmena, 2009ko urriaren 1ean izenpetua (2009ko urriaren 6an Suprefeturak baliozkotua), honen helburua lokal bat (Zokoa-Untxineko hondartzako MNS-salbatzaileen egoitzako aldagelak) elkarteren esku jartzea baita, dohainik ;
- ZIBURU DONIBANE GYM elkartearekiko zerbitzu-emate hitzarmena, 2009ko urriaren 23an izenpetua ;
- Franck SCHINDOWSKY jaunarekiko hitzarmena, 2009ko azaroaren 5ean izenpetua, honen helburua etxe mugikor bat esku jartzea baita, dohainik ;
- DEPHIE CAP EMPLOI PAYS BASQUEkiko hitzarmena, 2009ko abenduaren 1ean izenpetua, honen helburua Marie Fleuret Herriko Haurtzaindegiko lehen estaian dauden LSHZko lokalak erakundearen esku jartzea baita, dohainik ;
- PEP elkartearekiko hitzarmena, 2009ko abenduaren 7an izenpetua, honen helburua elkarteren lokalak aldi baterako Marinela ama eskolaren esku jartzea baita ;
- PEP elkartearekiko hitzarmena, 2009ko abenduaren 14an izenpetua, honen helburua elkarreko langileak aldi baterako Marinela ama eskolaren esku jartzea baita ;
- AKITANIA ESKUALDEKO ERITASUN ASEGURU KUTXArekiko hitzarmena, 2009ko abenduaren 17an izenpetua, honen helburua LSHZko egoitzan permanentzietarako bulegoak Kutxaren esku jartzea baita ;
- BAIONA-EUSKAL HERRIKO MERKATARITZA ETA INDUSTRIA GANBARArekiko hitzarmena, 2010eko urtarrilaren 7an izenpetua, honen helburua Zokoako Jules Ferry eskola ohiaren ondo-ondoan dagoen lurzati bat esku jartzea baita, behin behineko eta dohainik ; hitzarmen hori eskola ohiaren aldi baterako erabilera berriaren esparruan izenpetua izan da.
- 2010erako Zokoa/Untxineko eskola-multzoko lokalak (dohainik) Aterbegabeko Aisialdi Zentroaren esku jartzeko hitzarmena, 2010eko urtarrilaren 19an izenpetua ;

- 2010erako Bertrand DELAS medikuarekiko lan kontratu bat, 2010eko urtarrilaren 19an izenpetua (2010eko otsailaren 1ean Suprefeturak baliozkotua), haurtzaindegiko haurrengan mediku gisa lanean aritzeko ;
- BAIONA-EUSKAL HERRIKO MERKATARITZA ETA INDUSTRIA GANBARArekiko itsas eremu publikoaren okupazio hitzarmena, 2010eko urtarrilaren 28an izenpetua, 2010eko Bixintxoko Besten antolaketaren esparruan ;
- ZIBURUKO GAZTEAK elkartearekiko hitzarmenaren 2. emendakina, 2010eko otsailaren 8an izenpetua, honen helburua Tiki trinketeko lokalak elkartearen esku jartzea baita, dohainik ;
- 64 DSSZ-Departamenduko Sute eta Sorospen Zentroarekiko hitzarmena, 2010eko urtarrilaren 7an izenpetua (2010eko otsailaren 5ean Suprefeturak baliozkotua), 2011ko « Bainatze – Itsas jardueren » zaintzari buruz.
- Gizarte eta Familia Laguntza elkartearekiko hitzarmena, 2010eko urtarrilaren 12an izenpetua, honen helburua 2010erako diru parte hartze bat ematea baita.

#### Komentarioak :

DUGUET andereak :

Lokalak, langileak eta eremua Merkataritza Ganbararen eta PEP elkartearen esku jartzen dituzten 3 ordezkari buruzko zalantzak baditugu : asunto hori ez ote da Herriko Kontseiluaren eskumenekoa ? Herriko zerbitzu publiko baten esparruan gaude (eskola) eta aterbetze zein harrera misioaren ardura elkarte bati edo Merkataritza Ganbarari ematen diogu.

Auzapez jaunak erantzun du prozedura hori guziaz Akademiako Ikuskaritza eta Baionako Suprefeturarekin lankidetzan eramana izan dela.

### **3) Jules Ferry eskola (Zokoa) : aldi baterako eskolako egoitzaren eta lanbide-bizilekuaren erabilera berria**

**Txostengile : Auzapez jauna**

MARINELA eskola-multzoa hunkitzen duten nahasmendu larriek eraman gaituzte Jules FERRY eskolako egoitza eta lanbide-bizileku ohiak aldi baterako bestela erabiltzera.

Kontsultatu dugun Pirinio Atlantikoetako prefetak erabilera horri buruzko aldeko irizpena eman du, 2009ko abenduaren 30eko gutun baten bidez, lokalak Eraikuntza eta Etxebizitza Kodean adierazi arauen arabera izanez gero.

Azalpen horren jarraian eta, gaia eztabaidatu ondotik, Herriko Kontseiluak :

- Erabilera berri hori espresuki **ERABAKI du**,
- **ERRAN DU** erabakia indarrean sartuko dela Prefetak erabilera onartu duen egunean.

## AHO BATEZ ONETSIA

Komentarioak :

DUGUET andereak :

Zertan da Marinela eskolari buruzko adituen lana ?

Auzapez jaunak erantzun du aditu bat behin etorri dela bertara. Eskolaren eraikuntzari buruzko hainbat txosten eskatu ditu peritu-txostena osatu ahal izateko.

### **4) Urteroko ekintza txostenak : PAES eta HHES**

**Txostengile : Auzapez jauna**

Pirinio Atlantikoetako Elektrifikazio Sindikatuaren eta Herriarteko Hondakinen Ezabatze Sindikatuaren urteroko ekintza txostenak Herriko Kontseiluari aurkeztu zaizkio.

### **III/ Finantza gaiak**

DUGUET andereak ohar orokor batzuk adierazi ditu :

- 1) Aurrekontuen publizitateari buruzko lurralde elkargoen kode orokorreko L.2313-1 artikulua arabera, derrigorrezkoa da txertatze bat tokiko argitalpen batean egitera ; aurten ez da eginga izan.
- 2) Aurrekontu erantsia eta aurrekontu bereziak : ongi liteke Gazteria Zerbitzuaren, bai eta Turismo Bulegoaren zein Besta Komitearen ekintzen txostenak aurkeztea (herriarteko sindikatuenak bezala), kontuan harturik aurrekontu-« satellite » horien aurrekontua handia dela.

### **1) 2009ko Kontu Administratiboak eta Kudeaketa Kontuak**

**Txostengile : LOLOM jauna**

Claude LOLOM jaunak, lehen auzapezordeak, Kudeaketa Kontuen arabera diren ondoko kontuak aurkeztu ditu : 2009ko ekitaldiko Udalaren Kontu Administratiboa ; 2009ko ekitaldiko Gazteria Zerbitzuaren eta Santa Teresa etxe-multzoaren aurrekontu erantsietako Kontu Administratiboa.

2010eko martxoaren 3an bildu zen Finantza Batzordearen irizpenaren jarraian eta, Auzapez jauna gelatik atera delarik, Herriko Kontseiluak :

- 2009ko Kontu Administratibo horiek **ONETSI ditu,**
- Donibane Lohizuneko Zerga-Etxe Nagusiak aurkeztu dituen Kudeaketa Kontuak **AKTAN JASO ditu.**

**ONETSIA**

GOURAUD, MINTEGUI, MADRID jaunak, BAZERQUE, DUGUET, TAPIA andereak abstenitu dira.

Botoan parte hartu ez duen Auzapez jauna berriz sartu da gelara.

#### Komentarioak :

GOURAUD jaunak :

#### **Funtzionamendu aurrekontua**

2008. urteko ekitaldiarekin konparatuz, gure gastuak % 5 emendatu eta gure diru-sarrerak % 6,25 beheititu dira.

Aurten ere, ikusten dugu langilego gastuen gorakada % 4,45ekoa dela.

Ziburutarren zergak **% 11,35** garestitu dira, krisialdiko garai honetan ikaragarria baita.

Ziburutarrek ordaintzen dituzten tokiko zergak batez besteko nazionala baino askoz ere altuagoak dira (455,58 € Ziburun eta 371 € batez besteko nazionala).

Estatua desengaiatzen da eta batez bestekoaren azpian gaude. 2008an baino % 0,30 gehiago jaso dugu.

Mutazio eskubideen beheititze adierazgarria Ziburutarren zergak eta Euskal Herri Hegoaldeko Herri Elkargoaren elkartasun zuzkidurak konpentsatua izan da.

Bideratua den zorra % 4 emendatzen da. Oroit gaitzen iaz + % 45era lehertu ginela.

778 319 €-ko soberakina badugu, baina inbertsioen gáneko defizita 591 423 €-koa denez, 186 990 €-ko gure maniobratzeko marjina gelditzen zágua 2010ean ezinbesteko inbertsioak egiteko.

#### **Inbertsioak :**

Estatua are gehiago desengaiatzen da ; diru-laguntzarik ez :

- Itsas-labarrentzat
- organoentzat (Diputatu jaunak eta Justizia Ministro andereak hitza jan dute)
- aisialdi zentroarentzat, nahiz 56 666 € inbertitu dtugun !! Marinela eskolako pitzaduren eraginez, aisialdi zentro horren sortzea atzeratua da. Zain egon beharko dugu egoera hobetu arte.

Gure inbertsioko diru-sarrerak mehe-meheak dira (2 867 130 €) eta hasierako aurrekontuan handietsiak izan dira (5 015 321 €).

## 2) 2010eko Aurrekontu Norabide Eztabaida

### **Txostengile : Auzapez jauna**

Eztabaida abiatu aitzin, Auzapez jaunak ondoko deklarazioa egin du, 2010erako Udalaren politikaren ardatz nagusiei buruz :

#### ➤ **Funtzionamendu politika zuhurra**

Diru-sarrera batzuen beheititze handia kontuan harturik, mutazio eskubideena bereziki (2008an, 650 000 € ; 2009an, 285 000 €) eta Ziburutarren gaineko presio fiskala ezinbestekora mugatzeko gisan, Udalak aurrekontu politika zorrotzari jarraipena eman nahi dio kudeaketa gastuak eta maileguaren erabilera ahalik eta gehien murriztuz : hala, ondoko kapituluaren gorakada - 011 (karga orokorrak), 012 (langilego kargak) eta 65 (bestelako kudeaketa arrunteko kargak) - % 2.65ekoa baizik ez da, 2009ko ekitaldiko gauzatzeekin konparatuz.

Aurten ere, araua honako hau izanen da : inbertsio programak abian jarriko dira dagozkien diru-sarrerak - proiektuentzat eskatu subentzioak eta diru-laguntzak bereziki - segurtatuak izanez gero.

#### ➤ **Iraupenean sartzen den inbertsio politika**

- Auzo guzietan, jarraituko dugu errepide-ekipamenduak hobetzen. 450 000 € inguru ezarriko ditugu obra horietan.
- Gure ondarearen salbatze eta zaharberritze obrak jarraituko ditugu : Bordagaineko Dorrean azken obrak (85 000 €), andere serorategiaen zaharberritzea (200 000 €). Begiratokiko hilerriaren berritze obrak aurten hasiko dira hezurtegi bat bertan sortuz (15 000 €). Recollet-en komentuaren berritzea (100000 €) abiatuko da bertan kultur eremu publiko bat sortzeko gisan : Ziburutarren esku berriz jarriko den garrantzi handiko leku horrek kongresuak, mintegiak eta erakusketak laster errezibituko ditu, bai eta arrantza arloan lanean ari diren IMA eta IFREMER bezalako erakundeak ere.
- Eskola arloan indar handiak egingen dira, bai eraikinetan egingen diren obren mailan, bai eskolako edo eskola inguruko harrera eta jarduerak zaintzeko ere (eskolako materiala, ateraldiak, igerilekua, itsasbela, informatika, golfa, eta abar.) 775 000 €-ko inbertsioa aurreikusia da : horretan sartuko da Zokoako Jules Ferry eskolaren konpontzea, zeren eta eskola horri esker, segurtasun arrazoinengatik hetsia izan den Marinela eskolako ikasleak errezibitzen ahal baititugu.

#### ➤ **Etorkizunari eta ingurumenaren hobetzeari buruz norabideratua den politika**

- Aurten ere, 30 000 € ezarriko ditugu eremu publikoan eta berdeguneen antolaketan,
- Zokoako itsaslabarrak sendotzeko : 100 000 €, hau da, obren kostu orokorraren % 20ko parte hartzea, saldoa Europak, Estatuak, Eskualdeko Kontseiluak eta Kontseilu Orokorrak beren gain hartzen dutelarik,
- 570 000 € ezarriko dira auzoetako sareen lurperatzean,
- 100 000 € inbertituko dira Kirol Zelaian eta herriko joko-eremuen antolaketan eta konponketan,
- Kontseilu Orokorrarekiko « bide berde » hitzarmen bat (75 000 €-ko parte hartzea) bizikletak eta oinezkoak aiseago ibil daitezen itsasbazterrean eta Urruña, Azkaine zein Donibane Lohizunerako bideetan,
- Hiribus elektrikoaren « pista »-ren jarraipen eta garapena. Duela bi urte, Ziburu izan da halako hiribus bat abian jarri duen Euskal itsasbazterreko lehen hiria : sasoiko bi hilabetez 10.000 bidaiari baino gehiago garraiatuz, egiazko arrakasta bildu du,
- Azterketa bat udal zerbitzuak ibilgailu elektrikoak hornitzeko.

Inbertsio horiek eremuak babestuko dituen THP batek indartuak izanen dira. Alabainan, THP horrek basogune sailkatu gehiago eta gure ingurumen eraikiaren babespen bat aurreikusten ditu, eraikuntza eta estiloko arau zorrotzak finkatuz eta AHPOB-Arkitectura, Hiri eta Paisai Ondarearen Babesgunearekin bat eginez.

Orokorkiago, Udalak jarraipena emanen dio Ziburutarren eta familia gazteen etxebizitzaren aldeko bere politikari :

- Zubiburu etxe-multzoaren ildoan - elkargo publikoek hiri-barnean bultzatu dituzten nahasketa sozialeko programen arrakastaren lekuko -, eko-auzo bat obratua izanen da Santa Teresan, tokiko promotore pribatu batekin lankidetzan hertsian. Programa horrek % 40 alokatze-etxebizitza sozial (erran nahi baitu SRU legeak agintzen duen betebeharra baino bi aldiz gehiago) eta % 20 jabetzarako sarbide sozial aurreikusten du, Etxebizitza Langile Batzordeak, gure partaide publikoak, obraturik.
- Udalak negoziaketan jarraitzen du bigarren lursail bat eskuratzeko : bertan herriko etxe-multzo bat kokatzeko asmoa du, jabetzarako sarbidean dauden banakako etxez osaturik. Promotoreek herrian inposatzen duten higiezinaren espekulazioak zailtzen du gure bilaketa.

2010erako gure inbertsio politikan aurkitzen den bemoi bakarra Zokoako Aisialdi Zentroaren eraikuntza txostenaren atzerapena da. Marinela eskolako ikasleak birkokatu behar izan baititugu, gaur egun inbertsio berri horretarako tokiak Marinela ama eskolako 5 gelak aterbetzen ditu.

Gero, LOLOM jaunak 2010eko aurrekontu proiektuaren zifra nagusiak aurkeztu ditu :

### « **Funtzionamenduko diru-sarrera nagusiak** »

**a) Funtzionamendu Zuzkidura Orokorraren bilakaera :**

2005 : 1 065 301 €  
2006 : 982 878 €  
2007 : 998 048 €  
2008 : 1 010 945 €  
2009 : 1 017 668 €  
2010 : 1 096 926 €

**b) Produktu fiskalaren bilakaera :**

2005 : 2 564 692 €  
2006 : 2 376 343 €  
2007 : 2 493 006 €  
2008 : 2 603 540 €  
2009 : 2 929 437 €  
2010 : *Zain*

**c) Mutazio eskubideak (adierazle gisa) : 300 000 €**

**Funtzionamenduko gastu nagusiak**

**a) Finantza gastuak :**

2005 : 114 237 €  
2006 : 117 143 €  
2007 : 133 623 €  
2008 : 146 450 €  
2009 : 149 440 €  
2010 : 166 500 € (horietarik 30 500 € Departamenduko Elektrifikazio Sindikatuari)  
(estimazioa)

**b) Udal langilegoa :**

2005 : 2 450 401 €  
2006 : 2 467 244 €  
2007 : 2 590 454 €  
2008 : 2 771 239 €  
2009 : 2 894 480 €  
2010 : 2 960 000 € (estimazioa + % 2.26)

**c) S.R.U. legeak eragin zigorak**

2005 : 70 431 €  
2006 : 0 €  
2007 : 0 €  
2008 : 0 €  
2009 : 0 €  
2010 : 0 €

**d) Egiazko funtzionamendu gastuak**

2005 : 4 469 526 €

2006 : 4 790 971 €  
2007 : 5 155 658 €  
2008 : 5 403 125 €  
2009 : 5 457 977 €  
2010 : 5 656 200 € (estimazioa, + % 3.63)

## **Inbertsioko gastuak :**

### **a) Herriko zorra :**

#### **Urtarrilaren 1ean zor genuen kapitala**

2005 : 2 809 888 €  
2006 : 3 113 601 €  
2007 : 3 509 611 €  
2008 : 3 161 322 €  
2009 : 4 551 334 €  
2010 : 4 729 306 € (horietarik 707 348 € Departamenduko Elektrifikazio Sindikatuari)

#### **Urteroko kapitalaren itzulketa :**

2005 : 396 287 €  
2006 : 399 895 €  
2007 : 348 290 €  
2008 : 310 000 €  
2009 : 335 520 € (+ aurretik egin itzulketa 460 000€)  
2010 : 364 642 € (horietarik 45 418 € Departamenduko Elektrifikazio Sindikatuari)

### **b) Lur eskuratzeak**

Sardara lokala : 170 000 €

### **c) Obrak**

Aurreikusi da 2010. urtearen hasierako aurrekontuan ondoko inbertsio obrak sartzea (zenbatekoak ez dira behin betikoak ; adierazle gisa agertzen dira) :

- Herriko eraikinak : 310 000 €
- Eskolako eraikinak : 775 000 €, horietarik 745 000 € Zokoako Jules Ferry eskola konpontzeko, Marinela eskolaren hestearen ondorioz.
- Kirol ekipamenduak : 35 000 €
- Joko-eremuak (arauen arabera ezartzea eta antolaketak) : 100 000 €
- Zerbitzu Teknikoetako materiala : 130 000 €
- Bidegintza : 410 000 €
- Argiztapen publikoa : 560 000 €

- Gurtzako eraikinak : 210 000 €
- Kultur eraikinak : 100 000 €
- Itsaslabarrak : 100 000 €
- Bordagaineko Dorrea : 85 000 €
- Organoak : 30 000 €.

### **Inbertsioko diru-sarrerak:**

**a) Funtzionamendu soberakina**

2005 : 690 532 €

2006 : 781 429 €

2007 : 860 556 €

2008 : 723 084 € (+ Zubiburuko soberakinaren berrekuratzea : 780 007 €)

2009 : 778 319.01 €

**b) Tokiko Ekipamendu Zerga : (zain)**

**c) BEZaren Konpentsazio Fundoa : 150 280 €**

**d) Amortizazioak : 262 500 €**

**e) Bestelako diru-laguntzak : 640 000 €**

**f) Lur salmentak : 410 000 €**

Askena : 100 000 €

Novelty lokala : 310 000 € »

Orduan, eztabaidari hasiera eman zaio :

BAZERQUE andereak galdegin du Recollet-en lokalak komeni ote zaizkion IFREMER-i. Auzapez jaunak azpimarratu du Kontseilu Orokorrak eskuratuko duen eraikinaren azaleraren arabera dela. Orain arte, IFREMER-i ez zaio proposamen konkretu bat ere luzatu.

MADRID jaunak azaldu du aurrekontu norabideetan ez duela ezer ikusi merkatariei ekarri laguntzari buruz.

Auzapez jaunak erantzun dio THPk klausulak edukiko dituela hiri-barneko saltegi batzuk babesteko gisan.

DUGUET andereak :

Aurrekontu norabideak irakurri ondotik, Auzapez jaunari ohartarazi nahi diogu, legeriaren arabera, derrigorrezkoa dela norabide horiek aurretik jakinaraztea eztabaida iragan ahal izateko.

Aurtengo eztabaida tentsio sozial handiko giroan iragaten denez, pentsamendu berezi bat badugu zailtasunetan dauden Ziburutarrentzat.

2009, urte txarra Ziburuko herriarentzat

- Kasinoa, bertan behera utzia : 610 000 € + gastu erantsiak lursailaren erosketarako, debaldetan (suposatzen dut berriz saltzen saiatuko garela...)
  - PEP elkartearen Novelty lokala : 305 000 € engaiatuak erosketarako, debaldetan (berriz saltzen baitugu)
  - uholdeak
  - Marinela eskola : zerbitzuz kanpo
  - Jules Ferry eskola : antolatzea
- Miloi bat euro baino gehiago engaiatuak izan dira, egin beharko edo egiten ahalko ez zatekeena.
- Gure blokeen etxea ez da eremu publikoan gelditu, alde batera nahita utzi baituzue.

### **Funtzionamendua, diru-sarreraren aldetik**

Atseginez ikusi dugu Funtzionamendu Zuzkidura Orokorra % 7,78 emendatu dela. Azpimarratu nahi dugu 2010erako bilakaera fiskalari buruzko azalpenik ez dela. Hala, aurrean baliteke Ziburutarren zergak ez emendatzea.

### **Funtzionamendua, gastuen aldetik**

Finantza gastuen gorakada % 11koa da eta funtzionamendu gastuak + % 3,63ra mugatzeko asmoa duzue. Ahalegin laudagarria !

### **Inbertsioa, gastuen aldetik**

Herriko zorraren kapitalaren gaineko gorakada % 4koa da. Interesei dagokionez, ez dugu urtekako interesen egoera zehatzaren proiektiorik elektrifikazioarentzat. Beste interesei dagokionez, 1 170 181 € zor ditugu 2033 arte.

Egun, 2 845 000 €-ko gastuak eta 1 517 530 €-ko dirusarrerak aurreikusten dituzue.

Harritu gaitu ikusteak argiztapen publikoaren kostua 560 000 €-koa dela, 2009an 63 000 € ordaindu genuelarik (horietarik 24 000 € interesetarako). 45 418 €-ko interesak atxiki dituzue aurreko orrian, beraz 560 000 € horiek ezegoki iduitzen zaizkigu.

Gainera, honako hauek ez dituzue gehiago aipatzen :

- Santa Teresa etxe-multzoa Etxebizitza Langile Batzordeari saltzea ? Zer gertatzen da ?
- Olaizola enpresaren jabetza erostea (556 000 € 2009ko inbertsio aurrekontuan)

2010 : urte gogorra, Auzapez jauna

- iragan urteetan egin dituzun estimazio txarregatik (kasinoa, PEP elkartearen egoitza, euri-uren biltegiaren kokaera toki sentibera batean, eta abar.), alde batetik,
- eta hainbat gorabeherarengatik ere, bestetik.

Krisialdi finantzario, ekonomiko eta soziala areagotzen da. Espero dugu 2010erako zure ekintzak egoera larrian dauden Ziburutarren aldekoak izanen direla zeren eta, gaur egun, ekintza soziala ez baita aldatu. LSHZ lanean ari da baina udalak ez du benetako ekintzarik abiatu arlo horretan.

Gainera, garapen iraunkorrari dagokionez, ez duzue asmo handiko politikarik erakutsi ere. Ikusi nahi genuke aspektu hori garatzen, bereziki herriko tresneriaren eta ibilgailuen mailan, bai eta higiezinaren arloan ere, bistan dena.

Goraipatu nahi dugu 2009an egin euskararen aldeko indarra : gure herriko kontseiluen bildumak itzuliak dira eta, EHHHEren eta Euskararen Erakunde Publikoaren arteko hitzarmena izenpetua izan da.

Bukatzeko, eta hori ez da aurrekontuari lotua, elkarrizketa konstruktibo batean oinarritu benetako trukaketa bat lortu nahi genuke gure hiru alderdi politikoen artean, Ziburun gertatzen dena prentsaren bidez jakiteko ordez. Ziburutarrak eta Ziburuko herria ditugu gogoan.

Auzapez jaunak azpimarratu du zorpetzea dela herri baten bizkortasunaren bermea. Blokeen etxeari buruz, Auzapez jaunak berriz erran du asunto hori ez dagokiola Ziburuko udalari : eraikin hori Kontseilu Orokorraren ondasuna da, Merkataritza Ganbararen emakidaren pean ; horretan Ziburuko udalak ez du eskumenik.

Santa Teresaren txostenari buruz, Auzapez jaunak gaineratu du Udalaren partaide publikoa Etxebizitza Langile Batzordea dela.

Auzapez jaunak erran du akordio bat lortzear dagoela Olaizola enpresarekin, azken hau berriz kokatzeko eta honen egoitza ohia libratzeko.

Kasinoa kokatu behar zen lursailari buruz, Auzapez jaunak erran du salmenta bat gerta litekeela aurtan. Gauza bera gertatzen da Askena etxearen kasuan. Hala ere, azpimarratu du 2010eko aurrekontuaren proiektuan diru-sarrera seguruak baizik ez dituela ikusi nahi.

Hitzaldi horien jarraian, Herriko Kontseiluak :

- 2010eko Aurrekontu Norabide Eztatidaren edukia **AKTAN JASO DU**.

### **3) Gazteen Etorkizunerako Tokiko Misioa : 2010eko diru-laguntza**

**Txostengile : LOLOM jauna**

Auzapez jaunak jakinarazi die Herriko Kontseiluko kideei 2010eko otsailaren 11ko gutun baten bidez Euskal Herriko Gazteen Etorkizunerako Tokiko Misioak Ziburuko herriaren parte hartzearen berri eman digula : 2010erako 8 477 €-koa izanen da.

2010eko martxoaren 3an bildu zen Finantza Batzordearen irizpenaren jarraian eta, gai hori eztabaidatu ondotik, Herriko Kontseiluak :

- **ERABAKI DU** 8 477 €-ko diru-laguntza bat ematea Euskal Herriko Gazteen Etorkizunerako Tokiko Misioari 2010eko ekitaldian bere parte hartzeagatik, behar diren kredituak 2010eko hasierako aurrekontuan idatziak direlarik, 6 288 artikuluan.

Komentarioa :

Azpimarratzekoa da parte hartze hori 8 311 €-koa zeh 2008an.

**AHO BATEZ ONETSIA**

#### 4) Saski salmenta

**Txostengile : LOLOM jauna**

Auzapez jaunak jakinarazi die Herriko Kontseiluko kideei komeni dela saski salmentarako kontribuzioa finkatzea 2010eko udarako. Oroitarazi du 2009an alokatzeko eskubidea honela finkatua zela : 275 € + diru-sarrerren % 5.

2010eko martxoaren 3an bildu zen Finantza Batzordearen irizpenaren jarraian eta, gai hori eztabaidatu ondotik, Herriko Kontseiluak :

- 2010eko udarako saski salmentarako kontribuzioa honela **FINKATU DU** : 275€ + diru-sarrerren % 5.

#### AHO BATEZ ONETSIA

#### 5) H.E.V.E.N. elkarteak – Denbora heren pedagogikoa : Gurutze Gorriko eskola

**Txostengile : LOLOM jauna**

H.E.V.E.N. elkarteak bere laguntza ekartzen dio Ziburuko herriari Gurutze Gorriko eskolan (2 gela) itsasbela eta itsas ingurumena irakatsiz, denbora heren pedagogikoaren esparruan.

Horren truke, Auzapez jaunak proposatu du H.E.V.E.N. elkarteari diru-laguntza bat ematea itsasbela irakaslearen soldata eta karga sozialetarako, bai eta materialaren erabilerarako ere.

Ziburuko herriaren parte hartzea 6 340 €-koa izan liteke 2009-2010eko ikasturterako.

2010eko martxoaren 3an bildu zen Finantza Batzordearen irizpenaren jarraian eta, gai hori eztabaidatu ondotik, Herriko Kontseiluak :

- **BAIMENA EMATEN DIO** Auzapez jaunari 2010. urterako parte hartzea ordaintzeko, gain honetan adierazia den moduan, behar diren kredituak 2010eko hasierako aurrekontuan idatziak direlarik, 6.288 artikuluan.

#### AHO BATEZ ONETSIA

#### 6) A.D.I.P.G.N : Golfa ezagutu, ikasi eta hobetu

**Txostengile : LOLOM jauna**

Auzapez jaunak oroitarazi die Herriko Kontseiluko kideei A.D.I.P.G.N elkarteak (Urdazuriko Golfa Ezagutu, Ikasi eta Hobetzeko Elkarteak) engaiatu dela Urdazuriko instalazioetan Urdazuriko Golf eskolaren funtzionamendua segurtatzera, 8-15 urteko 14 Ziburutarrentzat 2009-2010eko ikasturterako.

Irakasleen soldatak, materialaren eskuratzea eta mantentzea elkarteak bere gain hartzen ditu.

Horren truke, Auzapez jaunak proposatu dio Herriko Kontseiluari 533,54 € ematea elkarteari, erran nahi baitu 38,11 € kurtso horiek segitzen dituen haurreko.

2010eko martxoaren 3an bildu Finantza Batzordearen irizpenaren jarraian eta, gai hori eztabaidatu ondotik, Herriko Kontseiluak :

- **BAIMENA EMAN DIO** Auzapez jaunari 2010eko parte hartzea emateko, gain honetan adierazia den moduan, behar diren kredituak 2010eko hasierako aurrekontuan idatziak direlarik, 658 artikuluan.

### **AHO BATEZ ONETSIA**

#### **7) YACHT CLUB BASQUE elkartea : Denbora heren pedagogikoa : Saint-Michel eskola**

**Txostengile : LOLOM jauna**

YACHT CLUB BASQUE elkarteak bere laguntza ekartzen dio Ziburuko herriari itsasbela eta itsas ingurumena irakatsiz Saint-Michel eskolan, denbora heren pedagogikoaren esparruan.

Horren truke, Auzapez jaunak proposatu du YACHT CLUB BASQUE elkarteari diru-laguntza bat ematea itsasbela irakaslearen soldata eta karga sozialetarako, bai eta materialaren erabilerarako ere.

Ziburuko herriaren parte hartzea 3 450 €-koa da 2009-2010eko ikasturterako.

2010eko martxoaren 3an bildu zen Finantza Batzordearen irizpenaren jarraian eta, gaia eztabaidatu ondotik, Herriko Kontseiluak :

- **BAIMENA EMAN DIO** Auzapez jaunari 2010eko parte hartzea emateko, gain honetan adierazia den moduan, behar diren kredituak 2010eko hasierako aurrekontuan idatziak direlarik, 6288 artikuluan.

### **AHO BATEZ ONETSIA**

#### **8) 2009ko lurgintza politikaren bilana**

**Txostengile : LOLOM jauna**

1995eko otsailaren 8ko 95-127 legearen 11. artikulua, lurralde elkargoek egin higiezin eragiketei buruzkoak, aurreikusten du biltzar erabakitzaileek urtean behin gutxienez eztabaidatu behar dutela elkargoak eramandako lurgintza politika.

2009an egin eragiketen zerrenda jarraian aurkituko duzue.

➤ Eskuratzeak :

121 m2 inguruko azalerako lokal baten eskuratzea, « SARDARA » deitu eraikinaren beheko solairuan dagoena, 170 000 €-ko prezioan. – 2007ko abenduaren 12ko deliberoa – 2009ko abenduaren 23an izenpetu akta.

➤ Lagapenak :

Herriko lurzati batzuen lagapena Frantzia Hegoaldeko Autobideen Sozietatearen probetxurako, gure herrian egin autobidearen zabaltzearen esparruan (bi bider hiru lerro), 180 000 €-ko prezioan – 2008ko urriaren 22ko deliberoa – 2009ko ekainaren 30ean izenpetu akta.

Azalpen horren jarraian, Herriko Kontseiluak :

- 2009ko lurgintza politikaren inguruko eztabaida eta honen bilana **AKTAN JASO DITU**.

**9) 2009/2010eko hiru alderdiko ondarearen garapen hitzarmena Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Orokorrekin eta LEIHORRA Higiezin Sozietate Zibilarekin : hitzarmena izenpetzeko baimena**

**Txostengile : LOLOM jauna**

Auzapez jaunak oroitarazi die Herriko Kontseiluko kideei 2008ko abenduaren 22ko delibero baten bidez Herriko Kontseiluak erabaki zuela ondare babestuen zaharberritzerako herriko laguntza fondo bat sortzea. Fondo horri eman urteroko diru-kopurua 15 000 €-koa da.

Leihorra sozietateak, eraikin babestu baten jabe gisa, Departamenduaren eta Ziburuko udalaren laguntza eskatu du Leihorra etxearen zaharberritze eta balorizaziorako.

Ondare babestuak zaharberritzen dituzten jabeen aldeko laguntzei dagokienez, Kontseilu Orokorrak parte hartzen du udalak esku hartuz gero.

Udalaren eta Kontseilu Orokorren parte hartzea Leihorra etxearen zaharberritze obretan 2009-2011rako hiru alderdiko hitzarmen baten menpe dago.

Ziburuko udalaren jabearekiko diru-engaiamendua honako hau da : Leihorra etxearen zaharberritzean % 10eko mailan parte hartzea, hiru urtez urteko laguntza 15 000 €-ra mugatua izanik eta ondoko egitarauaren arabera :

Leihorra etxea	Kostuaren estimazioa	Hasierako data	Amaierako data	Finantzaketa plana	Udalaren laguntza
Zaharberritze orokorra	750 000 €	2008	2010	Estatua : %20 Departamendua : 45 000€ Udala : 45 000€	45 000 € (15 000 € urteko)
OROTARA					45 000 €

Hitzarmena hiru urterako izenpetu da eta bi aldiz berritzen ahalko da. Urtero, emendakin batek finkatutako egitaraua eta ekarritako laguntza zehaztuko ditu.

2009ko emendakinak honako hauek adierazten ditu : 320 000 €-ko gastu bat, diru-laguntzak jaso litzakeena, eta udalak eman 15 000 €-ko laguntza bat.

Auzapez jaunak erran du kredituak 2010eko hasierako aurrekontuan idatziak izanen direla, 6745 artikuluan (« Zuzenbide pribatuko pertsoneri eman diru-laguntzak »).

Azalpen horren jarraian eta, gaia eztabaidatu ondotik, Herriko Kontseiluak :

- **BAIMENA EMAN DIO** Auzapez jaunari « Leihorra etxea – 2009-2011rako ondarearen garapen hitzarmena » izenpetzeko,
- **BAIMENA EMAN DU** Leihorra Higiezinaren Sozietate Zibilari diru-laguntza emateko, gain honetan adierazia den moduan.

Komentarioak :

MADRID jaunak azpimarratu du delibero horren aurka bozkatuko duela, uste duelako diru publikoa ez dela ondasun pribatuak finantzatzeko erabili behar.

GOURAUD jauna harritu da hitzarmen proiekturik ez baitu eskuratu. Xehetasunak galdegiten ditu Ziburuko udalaren parte hartze orokor eta hitzarmenaren iraupen zehatzari buruz : 9 urtekoa ote da ?

DUGUET andereak galdegin dio LALANNE jaunari ondare pribatu babestuen zerrenda berriz zehatzea eta ondoko galdera egin du : urteroko zenbateko osoa emana denez, beste eskaera bat etorriko balitz, nola egingen genuke ?

Auzapez jaunak baieztatu du hitzarmenak, Kontseilu Orokorreko zerbitzuek idatziak, berritze hori aurreikusten duela. Baina berritzea egiten ahal da Herriko Kontseiluaren adostasuna bildu eta bestelako obren plan bat aurkeztuz gero. Gaur egun, Udalaren engaiamendua hiru urteren buruan gelditzen da.

MADRID jaunak aurka bozkatu du.

DUGUET, BAZERQUE, TAPIA andereak, MINTEGUI eta GOURAUD jaunak abstenitu dira.

## ONETSIA

### IV/ Udal langilegoa

#### 1) Langile batzuk Laguntza Sozialerako Herriko Zentroaren esku jartzea

**Txostengile : LOLOM jauna**

Auzapez jaunak jakinarazi die Herriko Kontseiluko kideei komeni dela udal langile batzuk Laguntza Sozialerako Herriko Zentroaren esku jartzen dituen hitzarmena berritzea. Azken hau 2000ko urriaren 16an izenpetu eta bi aldiz berritu zen : 2003ko agorrilaren 6an eta 2007ko otsailaren 14an.

Kontabilitate eta Langilego Zerbitzuetako langileek LSHZko aurrekontuaren prestatze eta betetzea segurtatuko litzakete.

Esku jartze berri hori 2010eko martxoaren 1ean sar liteke indarrean 2013ko otsailaren 28an amaitzeko.

2010eko martxoaren 3an bildu zen Finantza eta Langilego Batzordearen irizpena jaso eta gaia eztabaidatu ondotik, Herriko Kontseiluak :

- Hitzarmena **ONETSI DU**,
- Auzapez jauna **BAIMENDU DU** hitzarmena izenpetzeko.

### **AHO BATEZ ONETSIA**

#### **2) Lanaldi partzialeko lanpostu baten sortzea**

**Txostengile : LOLOM jauna**

Auzapez jaunak honako hau jakinarazi die Herriko Kontseiluko kideei : ezkontide ezindua laguntzeko erretreta eskubideak baliarazi dituen langile titular batek, denbora osoz ari zenak, denbora partzialean jarraitzeko aukera eskatu du. 2. klaseko laguntzaile teknikoko lanpostu bat ematen ahal zaio, batez beste astean 15 orduz lanean aritzeko.

Ondorioz, komeni da lanaldi partzialeko 2. klaseko lurralde laguntzaile teknikoko lanpostu bat sortzea, 2010eko apirilaren 1etik goiti.

2010eko martxoaren 3an bildu zen Finantza eta Langilego Batzordearen irizpena jaso eta gaia eztabaidatu ondotik, Herriko Kontseiluak :

- **ERABAKI DU** lanaldi partzialeko 2. klaseko lurralde laguntzaile teknikoko lanpostu bat sortzea, batez beste astean 15 orduz lanean ariko dena, 2010eko apirilaren 1etik goiti,
- **ALDATU DU** lanpostuen zerrenda erabaki horren arabera.

### **AHO BATEZ ONETSIA**

Komentarioa :

GOURAUD jaunak : Badirudi akats bat badela paragrafoan (frantsesez) : *En conséquence 2<sup>ème</sup> classe à temps non complet (au lieu de temps complet)...*

#### **3) 2010erako gradu igotzea**

**Txostengile : LOLOM jauna**

2009ko abenduaren 29ko 2009-1711 dekretuak hainbat dekretu aldatzen ditu, B eta C kategorian dauden enplegetako kuadroen estatutu bereziak daramatzatenak. Aldaketa horiek 3. ordaintze eskalan sailkatuak diren C kategoriako lurralde funtzionarioen gradu igotzeko baldintzei bereziki dagozkie.

Auzapez jaunak honako hau jakinarazi die Herriko Kontseiluko kideei : gain honetako dekretuaren arabera, langile bat, 2. klaseko laguntzaile administratibo titularra eta denbora osoz ari dena, graduz igo daiteke 1. klaseko laguntzaile administratibo bihurtzeko.

2010eko martxoaren 3an bildu zen Finantza eta Langilego Batzordearen irizpena jaso eta gaia eztabaidatu ondotik, Herriko Kontseiluak :

- **ERABAKI DU** 1. klaseko laguntzaile administratiboko lanpostu bat sortzea, denbora osoz, 2010eko apirilaren 1etik goiti,
- **ALDATU DU** lanpostuen zerrenda erabaki horren arabera.

### **AHO BATEZ ONETSIA**

#### **VII/ « Ziburu Aintzina » taldearen ahozko galderak**

Galdera horiek TAPIA andereak aurkeztu ditu.

##### **1. Galdera**

« Gure herrian demokraziaren erabilera osoki bete ahal izateko, Auzapez jaunari galdegiten diogu, 2010eko martxoaren 21ean, igandea, Batera plataformaren herri-kontsultarako, ondoko materiala gure esku jartzen ahalko ote duen :

- Bozka bulego bakoitzari dagokion hauteskundeetarako zerrenda ?
- 5 hautestontzi
- 5 bakartegi
- 5 mahai eta 10 aulki ».

Auzapez jaunak erantzun du Batera plataformak galdeginik, hauteskundeetarako zerrendak emanen direla eta, bestalde, egun eskatu gainerateko materiala ere eskatzaileen esku jarriko dela. Alta, azpimarratu du kontsulta hori ez dela bozka bulego ofizialetan antolatatu behar, ez eta bulego horietatik hurbil ere, Eskualdeko hauteskundeen iragapena ez tratatzeko.

##### **2. Galdera**

« Zertan da Ziburuko zahar-etxearen proiektua ? »

Auzapez jaunak erantzun du Ziburuko udalak irabazi duen lehen auzialdiaren jarraian, sozietate auzi-jartzaileak gora jo du. Epaia oraindik ez da emana izan. Beraz, txostena oraindik gelditua da, Dei Auzitegiaren erabakiaren zain.

### **3. Galdera**

« Zertan da Ziburuko THP? »

Auzapez jaunak bideratua den prozedurari buruzko puntu bat egin du :

- THPren aurkezpen txostena Estatuko zerbitzuei eman zaie,
- Ekainean : Hirigintza Batzordea,
- Uztailean : Herriko Kontseiluak THP berriz erabaki behar du,
- Estatuko zerbitzuen kontsultaren jarraian (3 hilabete), onespina urte amaieran.

Gai zerrenda agortu eta gero, bilkura 20 :00etan amaitu da.